



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 9a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—2018ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**2018ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena,
Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2018ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-20/CCO-00030).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2018ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Toki sektore publikoaren antolaketa egitura eta araudia (4. or.).
 - II.1. Antolaketa egitura (4. or.).

- II.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege neurriak (6. or.).

- II.3. 2018an onetsitako araudia (7. or.).

- III. Helburua, irismena eta mugak (8. or.).

- IV. Toki entitateen fiskalizazio jardueren laburpen memoria (10. or.).

- V. Toki sektore publikoaren finantza egoera (13. or.).

- V.1. Diru-sarrerak (13. or.).

- V.2. Gastuak (14. or.).

- V.3. Adierazleak (15. or.).

- V.4. Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak (17. or.).

- VI. Kontratazio administratiboa (18. or.).

- VII. Biztanleria geruzen arabera alderaketa, hainbat adierazleren gainean, Nafarroako udalen eta Estatu mailako udalen artean (20. or.).

- VIII. Ondorioak eta gomendioak (24. or.).

- 1. eranskina. Toki entitateei aplikatu beharreko araudia 2018ko ekitaldian (28. or.).

- 2. eranskina. Nafarroako toki sektore publikoaren 2018ko finantza egoera.

Oharra: Aipatutako 2. eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da, Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Hala, foru lege horren 350.2 artikulua araberara, nahitaezkoa da Kontuen Ganberaren kontrol eta fiskalizazio jardueren laburpen memoria bidaltzea, urtero, Nafarroako Gobernura eta Parlamentura, Nafarroako toki entitateen eremuan.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezartzen du zein epe dituzten toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onartu eta Gobernura bidaltzeko. Bada, kontuan hartuta epe horiek eta informazio horren tratamenduaren gaineko konplexutasuna, ulertzekoa da 2018ko ekitaldiari buruzko txostena aurretik egin ezin izatea.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, toki sektore publikoaren antolaketa egitura eta 2018an onartutako araudi nagusia agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak erakusten ditugu. Laugarren ataletik zazpigarrenera bitartean, 2018ari buruzko honako alderdi hauek azaltzen dira: Kontuen Ganberaren fiskalizazio jardueren memoria, toki sektore publikoari buruz; sektorearen finantza egoera; toki entitateen administrazio kontratazioa; eta biztanleria geruzen araberako alderaketa, hainbat adierazleren gainean, Nafarroako udalen eta Estatu osoko udalen artean. Egindako lanaren ondorioak eta gomendioak jasotzen ditu azken atalak.

Txostenarekin batera, gainera, bi eranskin daude: 2018an Nafarroako toki entitateetan aplikatu beharreko araudia, batetik, eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak 2018an sektore publikoaren finantza egoerari buruz egindako txostena, bestetik.

Lana 2020ko irailean egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA EGITURA ETA ARAUDIA

II.1. ANTOLAKETA EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde antolamenduaren oinarritzko toki entitateak. Horiez gain, 2018. urtean toki entitatetzat jo dira honako hauek:

- Kontzejuak: udalerrri baten mugartean kokatutako toki entitateak, hura baino lurralde eremu eta biztanleria txikiagoa dutenak.
- Herri ondasunen titular edo administratzaile diren korporazio tradizionalak. Bardeako Elkar-tea, Aezkoako Elkar-tea, Erronkaribarko Mankomunitatea, Zaraitzuko Unibertsitatea eta gainerako udalbatzak.
- Mankomunitateak edo zenbait udalen batasunak, obrak elkarrekin egin eta haien eskume-nekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Udal batasunak, zerbitzu komunak ematea eskatzen dutenak, dauzkaten ezaugarriengatik.
- Administrazio barrutiak, 5.000 biztanlera iristen ez diren landa inguruneko udalek boronda-tez osatutakoak.
- Toki partzuergoa: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 2ko 23/2014 Foru Legeak partzuergoak sartu zituen toki entitate gisa. Toki entitate gisa sartze horrek gatazka piztu zuen Estatuarekin; ondoren, Estatu Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzak Batzak honako akordio hau hartu zuen 2015eko irailaren 9an:

“a) 23/2014 Foru Legearen 3.1.f; 212.4 eta 5. artikuluek toki entitatearen izaera aitortzen diete tokiko partzuergoei. Nafarroako Foru Komunitateak konpromisoa hartzen du legegintzaldi honetan lege hori aldatzeko, halako moduz non araua egokituko zaion Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen azken xeda-penetatik bigarreanean xedatutakoari —hartan zehazten da partzuergo bakoitza administrazio publiko bati atxikiko zaiola— bai eta estatuko oinarritzko legeriaren gainerakoari ere, halako moduz non toki partzuergoak ez diren Nafarroako toki entitate gisa aitortuko.”

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi izanak berekin ekarri du partzuergoak toki entitate gisa desagertzea, eta horrekin bete egin da Nafarroako Foru Komunitatearekin hartutako konpromisoa, arestian aipatutakoa. Era berean, foru lege horrek udal batasunak eta administrazio barrutiak ezabatzen ditu, bertan aurreikusitako araudi garapena gauzatzen den heinean.

Hona hemen toki entitateen kopurua, 2018ko abenduaren 31n, aurreko urteetan egon direnekin alderatuta:

Toki entitatea	2014	2015	2016	2017	2018
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	347	347	346	346	346
Mankomunitateak ⁽²⁾	65	63	63	62	62
Udal batasunak	19	19	20	23	22
Guztira	703	701	701	703	702

(1) 60 dira udal konposatuak.

(2) Bi mankomunitatek ez dute jarduerarik.

Datu horiek 2017ko datuekin alderatuz gero, aldaketa bakarra antzeman dugu: Cadreita eta Alesbeseko administrazio zerbitzuen batasunaren baja. 22 batasunetatik, 11 dira tradizionalak; gainerakoak administrazio zerbitzuen batasunak dira.

Erakunde autonomo, toki enpresa publiko, toki fundazio publiko eta partzuergoen kopurua honako hau izan da 2014tik 2018ra bitarteko aldian:

Entitatea	2014	2015	2016	2017	2018
Erakunde autonomoak	65	65	64	63	60
Enpresa publikoak	54	55	54	53	57
Fundazio publikoak	9	9	9	8	8
Partzuergoak	15	15	15	17	17
Guztira	143	144	142	141	142


2017ko datuekin alderatuta, iraungi egin dira Tafallako kulturako udal Patronatua, Tafallako musika eskola udal Patronatua eta San Adrián Irratia erakunde autonomoa.

60 erakunde autonomoetatik, bi daude mankomunitateen menpe eta gainerakoak udalen menpe.

Enpresa publikoetan, 2017ko datuekin alderatuta, zortzi berri erregistratu dira, eta lau baja egiaztatu. Sortutako enpresak honako hauek izan dira: Anikote Leitz SL, Operador Energético Municipal de Pamplona SL, Usalanda Gestión Pública SL, Bijuestxirringua SL, Servicios Deportivos de Sangüesa, S.L, Basanet Basaburua SL, Elortzibar Servicios Deportivos, SL eta Comercializadora Urdazubi SL. Baja eman duten enpresak honako hauek izan dira: Panificadora Harinera Echalar SL, Asimec SA, Sociedad urbanística de Yesa eta Gestión y Promoción Egüés 21-II SL.

Partzuergo eta fundazioetan, ez da aldaketarik egon aurreko urtearekin alderatuta.

Aurreko datuak kontuan hartuta, Nafarroako toki sektore publikoaren egitura, 2018ko abenduaren 31n, honako hau izan da:



Nafarroako 272 udaletako biztanleria, 2018ko urtarrilaren 1ean, 647.554 biztanlekoa izan da, errolda ofizialeko datuen arabera. Bertan, honako banaketa ageri zen:

Biztanleria tartea	Udalen kopurua	Udalen ehunekoa, guztizkoaren gainean	Biztanleria	Biztanleriaren ehunekoa, guztizkoaren gainean
<101	44	16,2	2.656	0,4
101-200	51	18,8	7.217	1,1
201-500	58	21,3	18.700	2,9
501-1.000	36	13,2	26.270	4,1
1.001-2.000	23	8,5	32.241	5,0
2.001-3.000	23	8,5	57.280	8,8
3.001-5.000	16	5,9	63.048	9,7
5.001-10.000	9	3,3	64.999	10,0
10.001-20.000	8	2,9	99.671	15,4
20.001-30.000	2	0,7	40.813	6,3
30.001-50.000	1	0,4	35.593	5,5
50.000tik gora	1	0,4	199.066	30,4
Guztira	272	100	647.554	100

Aurreko datuetatik nabarmentzekoa da Nafarroako udalen ehuneko 70ek (189 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dutela eta, multzo osoan, biztanleriaren ehuneko lau osatzen dutela. Era berean, Iruñak eta 10.000 biztanletik gorako hamaika udalek Nafarroako biztanleriaren ehuneko 58 osatzen dute.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriz adierazi duen gisan, biztanleen dimentsio murriztuarekin lotuta egon ohi dira baliabide mugatuak: bai giza baliabideak, bai baliabide finantzarioak. Halaber, halakoetan administrazio egitura egoki eta nahikoa falta izan ohi da eskumenak kudeatzeko. Horrek zailtasunak eragiten ditu zerbitzuak eraginkortasun, ekonomia, efizientzia eta kalitatez emateko orduan.

II.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE NEURRIAK

2017ko toki sektore publikoari buruz egindako txostenean (ganbera honek egindakoan) gai honi buruz aipatu diren aurrekariak bere horretan jarraitzen dute.

2019ko otsailean, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onartu zen.

Foru lege horrek toki antolaketa berri bat zehazten du. Bertan, toki entitateen bi mota berri agertzen dira, eta, bestalde, ordura arte zeuden beste batzuk desagertzen dira. Edonola ere, arau horretan hainbat xedapen iragankor eta azken xedapen agertzen dira, Foru Komunitateko Administrazioarako arau desberdinak ezartzen dituztenak, toki erreforma honen behin betiko forma zehazteko.

Nafarroako Parlamentura finantzaketa proposamen bat bidaltzeko ezartzen zuen xedapena –apurka-apurka egungo diru-laguntza finalisten ordeztoki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikuluan aurreikusitako finantzaketa moduluak jartzeko– 2019ko abenduaren 31n amaitu zen, eta finantzaketa proposamen hori ez da egin.

II.3. 2018an ONETSITAKO ARAUDIA

Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitateei aplikatzekoa zaien araudia txosten honekin batera doan 1. eranskinean ageri da. Jarraian, 2018an onetsi ziren eta sektore honetan aplikatzekoak diren arau nabarmenenak azpimarratu ditugu.

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.
- 12/2018 Foru Legea, ekainaren 14koa, Irisgarritasun Unibertsalari buruzkoa.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzkoa.
- 18/2018 Foru Legea, urriaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea.
- 22/2018 Foru Legea, azaroaren 13koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 1/2018 Errege Lege Dekretua, martxoaren 23koa, Toki-korporazioen superabita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetara bideratzeko aukera 2018ra luzatzen duena eta inbertsio horien eremu objektiboa aldatzen duena.
- 5/2018 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Gobernuak hartua, irizpideak ezartzen dituena Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko.
- 32/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen Europako atalaseak eguneratzen dituena.

III. HELBURUA, IRISMENA ETA MUGAK

Lan honen helburuak honako hauek izan dira:

- Ganbera honek Nafarroako toki entitateen eremuan egin zituen fiskalizazio jardueren laburpena aurkeztea, 2018ko ekitaldiko datuekin.
- Nafarroako toki entitateek 2018an egindako kontratazioa aztertzea.
- Nafarroako toki entitateen 2018ko finantza egoerari eta antolaketari buruzko ikuspegia eskaintzea Nafarroako Parlamentuari, administrazio publikoei eta jendarteari.
- Toki entitateen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.
- Biztanleria geruzen arabera alderaketa egitea, hainbat adierazleren gainean, Nafarroako udalen eta Estatu mailako udalen artean.

Toki entitateen 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra da lanaren irismena. Bertan, honako hauek sartzen dira:

- a) Entitatearen beraren (udala, kontzejua nahiz mankomunitatea izan) kontu orokorra, bai eta haren erakunde autonomoena ere.
- b) Merkataritza sozietateen kontuak, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.
- c) Eranskinak.

Era berean, Lurralde Kohesiorako Departamentuak egindako txostena aztertuko da, finantza egoerari buruzkoa.

Toki sektore publikoaren finantza egoera aztertzean, 2020ko ekainaren amaierarako toki entitate batzuek ez dute 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusira igorri, eta, beraz, ez dugu horien finantza eta aurrekontu mailako informaziorik eduki. Ondorioz, muga handiak izan ditugu lana egiteko orduan.

- 272 udaletik 17 izan dira informazio hori bidali ez dutenak: Abaurregaina, Abaurrepea, Añorbe, Azagra, Eratsun, Ezkaroze, Ezkurra, Fitero, Imotz, Jaurrieta, Mélida, Orkoién, Orontze, Saldias, Ollaran, Valtierra eta Zuñiga. Udal horien biztanleria guztira 15.623 pertsonakoa da, hau da, biztanleria osoaren gainean ehuneko 2,4.

- 2018an guztira dauden 346 kontzejuetatik 51: Aizpun, Albiasu, Antzin, Aos, Arlegi, Arrarats, Arrieta, Asterain, Biotzari, Zenborain, Zizur Txikia, Egues, Etxaleku, Galar, Gazolatz, Goldaratz, Genbe, Igoa, Ihaben, Inbuluzketa, Iturgoien, Izkue, Jauntsarats, Labeaga, Lapoblación, Larraia, Larraiotz, Latasa, Lizaso, Mendilibarri, Amunarriz, Muru Asterain, Murugarren, Muskiz, Olatz, Oloritz, Otsakar, Oskotz, Paternain, Saigots, Saldise, Senosiain, Undio, Untzu, Uritz, Urritza, Bidaurre, Zabal, Zarikegi, Zarrantz eta Zubiri. Kontzeju horien biztanleria guztira 7.655 pertsonakoa da, hau da, Nafarroako kontzejuetako biztanleria osoaren gainean ehuneko 19.

Nabarmentzekoa da Zizur Zendeako zortzi kontzejuak ez dutela konturik eman (biztanleria, guztira, 3.850 pertsonakoa da), ez eta Imotz Ibarreko zortzi kontzejuetako zazpi ere (biztanleria, guztira, 388 pertsonakoa da). Kontzeju horiek kontuak eman ez dituzten kontzejuetako biztanleria osoaren ehuneko 55 osatzen dute.

- Guztira 84 mankomunitate eta batasunetik 14 erakunde: Burgi, Bidankoze eta Gardeko Udalen Batasuna, Faltzes eta Miranda Argako Administrazio Zerbitzuen Batasuna, Erregerenako Batza, Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea, Los Arcos inguruko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Erriberriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Zarrakasteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Izarbeibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Kirolen Mankomunitatea, Ara-

xes Garaiko Mankomunitatea, Bortzirietako Euskararen Mankomunitatea, Orreagako Kirol Mankomunitatea, Ezkabarte-Olaibarreko Langileen Mankomunitatea, eta Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea.

Bestetik, zehaztu beharra dago finantza egoerari buruzko aipatutako azterketa egitean toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrekontu datu bateratuak hartu direla kontuan. Ez da informaziorik jasotzen sozietate publikoei, fundazio publikoei eta partzuergoei buruz, salbu eta zorpetzeari buruzko analisian, horretan udalen eta mankomunitateen menpeko sozietateei dagozkien datuak jasotzen baitira.

Norainokoak muga hau izan badu ere –informazio faltaren ondorioz–, uste dugu gure lanean lortutako ondorioak, datu horiek eduki izan bagenitu ere, ez liratekeela oso desberdinak izanen.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO JARDUEREN LABURPEN MEMORIA

Kontuen Ganberak honako zazpi udal hauen 2018. urteko Kontu Orokorraren erregularitasun fiskalizazioa egin zuen (finantzarioa eta legezketasunarena): Iruña, Burlata, Viana, Castejón, Murchante, Erriberri eta Martzilla. Gainera, Figaroleko Kontzejua eta Nafarroako Erdialdeko Garapen Partzuergoa fiskalizatu ziren.

Jarraian, toki entitate horiei buruzko datu batzuk emanen ditugu:

Toki entitatea	Txostenaren data	Biztanleria 2018-01-01ean	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2018-12-31n	Menpeko entitateak		
						Erak. auton.	Enpresa	Fundazioa
Iruña	2019-12-04	199.066	203.986.998	213.322.712	1.867	2	5	1
Burlata	2020-04-15	18.934	15.926.256	20.675.614	180	2	3	-
Viana	2019-12-18	4.156	4.425.422	5.232.552	39	-	-	1
Castejón	2020-02-18	4.109	5.914.919	6.194.245	86	1	-	-
Murchante	2019-12-27	4.088	3.184.091	3.516.049	30	-	-	-
Erriberri	2019-12-18	3.931	3.721.680	4.213.573	32	0	-	-
Martzilla	2019-12-30	2.862	3.975.046	4.468.552	66	2	-	-
Figaroleko Kontzejua	2020-06-11	314	300.845	308.808	2	-	-	-
Nafarroako Erdialdeko Partzuergoa	2020-05-21	39.777	822.750	902.096	10	1	-	-
Fiskalizatutako toki entitateak, guztira		277.237	242.258.007	258.834.201	2.312	8	8	2

Fiskalizatutako entitateei buruzko datu nagusiak eta Nafarroako toki sektore publiko osoa alderatzen baditugu, honako hauek dira emaitzak:

- Fiskalizatutako erakundeak Nafarroan 2018an daudenen artean ehuneko 1,3 dira, nahiz eta horien biztanleriak kopuru osoaren ehuneko 43 osatzen duen.
- Ikuskatutako erakundeen diru-sarrerek eta gastuek Nafarroako toki sektore publikoko diru-sarrera eta gastu guztien ehuneko 31 osatzen dute.
- Fiskalizatutako udal horien menpe dauden erakundeak guztien artean ehuneko 14,4 dira, partzuergoak kontuan hartu gabe.

Finantzen eta legezketasunaren fiskalizazioen helburua da honako hauei buruzko iritzi bat ematea:

- Finantzako auditoretzaren iritzia: ea Kontu Orokorrak jasotzen ote zuen, alderdi nabarmen guztietan, ondarearen, aurrekontuen likidazioaren eta toki entitatearen finantza egoeraren irudi zehatza, 2018ko abenduaren 31n; bai eta emaitza ekonomikoak eta aurrekontu mailakoak, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari buruzkoak, aplikagarri den finantza informazio publikoaren araudi esparruarekin bat, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko irizpide eta printzipioen arabera.
- Legezketasunaren betearazpenari buruzko iritzia: ea toki entitatearen 2018ko ekitaldiko finantza egoeretan adierazitako informazioa, jarduerak, eta aurrekontu nahiz finantzako eragiketak bat ote zetozen, alderdi nabarmen guztietan, funts publikoen kudeaketan aplikatu beharreko araudiarekin.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu ziren.

Txosten hauei buruzko iritziazi dagokionez, honako hauek izan ziren emaitzak:

a) Finantzako auditoretzaren iritzia positiboa izan zen, bederatzi entitatetan salbuespenak egon ziren arren. Honako hauek izan ziren salbuespen nagusiak:

- Ibilgetu materialaren saldoa ez da egin inbentario eguneratu baten gainean (zortzi entitate).
- Lotura juridikoaren poltsako behin betiko kredituak gainditzten dituzten gastuak zenbatetsi dira, dagokion aurrekontu aldaketa izapidetu gabe (entitate bat eta haren erakunde autonomoa).
- Biltzeko zailak diren saldoak ez dira zuzen jaso diruzaintzako soberakinean (entitate bat).
- Diruzaintzako soberakinean eta balantzean ez da jaso egiteke dagoen ordainketa bat, zenbateko nabarmena duena (entitate bat).
- Ez dira zenbatetsi udal montepioko langileen pentsioen ondoriozko aktuario betebeharrak (entitate bat).

b) Auditoretzak legezkotasunaren betearazpenari buruz zuen iritzia aldekoa izan zen entitate batean, eta salbuespenak agertu ziren gainerako zortzietan. Kasu honetan, honako hauek izan ziren salbuespen nagusiak:

- Kontratu euskarririk gabe ordaindu dira zerbitzuen eta horniduren ziozko gastuak, kasu batzuetan dagokion lizitazio prozedura ez delako izapidetu, eta, beste batzuetan, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu delako (zortzi entitate).
- Plantilla organikoa ez da ageri edo ez dago eguneratuta (entitate bat eta erakunde autonomo bat).
- Enplegu publikoaren eskaintzek gainditu egin dituzte Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako berrezartze tasen mugak (entitate bat eta erakunde autonomo bat).
- Ordainsariak ordaindu dira, udalaren eta haren erakunde autonomoen akordioan jasotako klausulen arabera, legezko esparrutik harago (entitate bat).
- Guztiz udalekoa den merkataritza sozietate bat eratzea onartu da, eta, beraz, urratu egin da Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legean aurreikusitakoa, udalean 2018-2019ko Plan Ekonomiko Finantzarioa baitago indarrean (entitate bat).

Ganbera honek entitate horien 2018ko fiskalizazio txostenetan jaso zituen gomendio nagusiak honako hauek izan ziren:

- *Udal inbentarioa onartu eta eguneratzea, eta altak eta bajak kontrolatzeko sistema bat ezartzea, une oro eguneratuta dagoela eta egoeraren balantzeko ibilgetuarekin bat datorrela egiaztatzeko (zortzi entitate).*
- *Kontratazio espediente egokiak lizitatzea, kontratuaren indarraldia bukatuta duten zerbitzuetarako eta beren balioagatik indarreko araudian hala aurreikusita dauden kasuetarako (zortzi entitate).*
- *Enplegu publikoaren eskaintza onartzea eta plantilla organikoan dauden plaza hutsak deitzea, indarreko araudiaren arabera, lanpostuen behin-behinekotasuna murrizte aldera (zortzi entitate).*
- *Barne kontrola egiteko giza baliabideak aski ote diren baloratzea, eta, hala badagokio, bi-tarteko egokiak jartzea, udalean eta haren menpeko erakundeetan finantza eta eraginkortasuna kontrolatzeko (sei entitate).*
- *Plantilla organikoa onartzea eta argitaratzea, eta, hala badagokio, baita haren aldaketak ere (bost entitate).*

- *Kostuen azterketa egitea, tasen kalkulua edo/eta dagozkien prezio publikoena barne (bost entitate).*
- *Udalaren aurrekontua onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epeen barruan (bost entitate).*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa eratzea eta Inbentario Orokorretik bereizita adieraztea hura osatzen duten ondasunak (lau entitate).*
- *Emakida zuzeneko araubidean kudeatzen diren dirulaguntzen partiden lankidetzak hitzarmenak sinatu edo eguneratzea, hala badagokio (lau entitate).*
- *Aurrekontu aldaketa egokiak izapidetzea, epe barruan eta modu egokian, kredituen lotura juridikoen poltsak gainditzen direla saiheste aldera (lau entitate).*
- *Balorazio txosten berria onartzea eta lurralde kontribuzio motak bateratzea, indarreko legedian ezarritako tartearen barruan (hiru entitate).*
- *Fakturak ordaintzea, araudian ezarritako gehieneko epearen barruan (hiru entitate).*
- *Aztertzea eta baloratzea ea komenigarria den erakunde autonomoa desegitea eta bere zerbitzu, eginkizun eta eskumenak erakunde nagusiaren egituran sartzeko, kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa lortzeko, bai eta sektore publiko arrazionalago eta errazagoa erdies-teko ere (hiru entitate).*
- *Kontu-hartzaitzaren memorian edo txostenean sartzeko nabarmena duten erreklamazio judizialen informazioa eta zenbatespena, udalarentzat finantza betebeharrak eragin baditzakete (hiru entitate).*
- *Hornitzaileei ordainketak egiteko batez besteko aldia kalkulatu eta argitaratzea (hiru entitate).*
- *Udaleko eta haren erakunde autonomoetako administrazioko langile eta funtzionarioen lan baldintzei buruzko akordioak aztertzea, eta itunak udalaren eskumeneko gaietara mugatzea (bi entitate).*
- *Udalak bere menpeko erakundeek garatutako jardueraren gainean egin behar duen barne kontrola era egokian bermatzeko prozedurak diseinatzea (bi entitate).*
- *Erakunde autonomoen estatutuak aldatu eta eguneratzea, foru legedian ezarritakoaren arabera (bi entitate).*

Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren gainean, orokorrean, erakundeek bete egin zituzten zerga arauak, honako kasu hauetan salbu: Burlatako Udalak ez zuen bete gastuaren araua, eta ez zuen onartu zergakion plan ekonomiko finantzarioa. Erriberriko Udalak, Nafarroako Erdialdeko Garapen Partzuergoak eta Figaroleko Kontzejuak ez zuten kalkulatu ez argitaratu hornitzaileei ordainketak egiteko baliatzen zuten batez besteko aldia. Ondorioz, ezin izan zen araua betetzen ote zen zehaztu.

Bestalde, Kontuen Ganberak txostena egin zuen toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko 2009-2018ko funtsari buruz.

Gomendioen artean honako hauek jasotzen ziren:

- *Onartu berri den araudian proposatutako aldaketak sartzeko.*
- *Banaketa formularen jasotako aldagaiak berraztertzea.*
- *Eskumenen adjudikazioa ezartzea, Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean aurreikusita ez dauden zerbitzuen kasuetan.*

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA

Toki sektore publikoaren 2018ko txostenean, honen 2. Eranskinean erantsi dugun horretan, toki entitateen (udalak, kontzejuak, mankomunitateak, batasun tradizionalak eta udal batasunak) informazio finkatua ageri da, beren erakunde autonomoekin batera.

V.1. DIRU-SARRERAK

Hona toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontuaren gaineko betearazpena:

(milioitan)					
Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Diru-sarrerak (2018)	Ehuneko, diru-sarrera guztien gainean	Betearazpena (%)	2018/17ko aldea (%)
1 Zuzeneko zergak	187,85	194,04	23,1	103	3
2 Zeharkako zergak	18,79	28,99	3,5	154	44
3 Tasak, prezio pub., eta beste sarrera batzuk	154,16	162,02	19,3	105	1
4 Transferentzia arruntak	321,11	322,93	38,5	101	4
5 Ondareko diru-sarrerak eta herri lurretako aprobetxamenduak	47,31	44,64	5,3	94	3
Diru-sarrera arruntak	729,22	752,62	89,7	103	4
6 Inbertsio errealen besterentzea	15,75	14,65	1,7	93	0
7 Kapital transferentziak	106,99	67,33	8,0	63	82
Kapitaleko diru-sarrerak	122,74	81,98	9,7	67	59
8 Finantza-aktiboak	118,23	0,76	0,1	1	-89
9 Finantza-pasiboak	22,16	4,12	0,5	19	27
Diru-sarrera finantzarioak	140,39	4,88	0,6	3	-52
Guztira	992,35	839,48	100	85	7

2018ko ekitaldirako diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenak 992,35 milioikoak izan ziren, eta ehuneko 85eko betearazpen maila izan zuten. Diru-sarrera arruntak aurreikuspenen ehuneko 103an egin ziren. Nabarmentzekoa da, hala ere, finantza eta kapital eragiketen betearazpen txikia, ehuneko 3an eta 67an bete baitziren, hurrenez hurren.

2018an, toki sektore publikoaren diru-sarrerak 839,48 milioikoak izan ziren; horietatik ehuneko 89,7 arruntak izan ziren (batez ere, transferentziak eta zergak). Kapitaleko diru-sarrerak zenbateko osoaren ehuneko 9,7 dira, eta gainerako ehuneko 0,6a finantza eragiketetan sartzen da.

2018ko diru-sarrerak, guztira, 2017. urteko zenbatekoak baino ehuneko zazpi gehiago izan ziren. Aldea positiboa izan zen kasu guztietan, finantza-aktiboen kasuan izan ezik, azken horretan ehuneko 89 jaitsi baitzen. Kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 59 igo ziren eta diru-sarrera arruntak ehuneko lau. Balio absolutuetan, igoerarik handiena kapitaleko diru-sarreraren eta diru-sarrera arruntan transferentzietan egon da, 30 eta 13 milioi igo baitira, hurrenez hurren.

Diru-sarrera guztien ehuneko 81 da udal eta kontzejuena, eta gainerako ehuneko 19a mankomunitate eta batasunena.

V.2. GASTUAK

Jarraian, toki sektore publikoaren 2018ko gastuen laburpen taula aurkeztu da:

(milioitan)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	2018ko gastuak	Gastu guztien gaineran (%)	Betearazpena (%)	2018/17ko aldea (%)
1 Langileria gastuak	291,15	280,75	35,6	96	1
2 Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	292,56	276,42	35,1	94	3
3 Finantza-gastuak	3,36	2,27	0,3	67	-19
4 Transferentzia arruntak	74,48	68,84	8,7	92	4
Eragiketa arruntak	661,55	628,28	79,7	95	2
5 Kontingentzia Funtsa	0,95	0,00	0,0	0	-
Kontingentzia Funtsa	0,95	0,00	0,0	0	-
6 Inbertsio errealeak	263,85	115,97	14,7	44	30
7 Kapital transferentziak	10,79	9,12	1,2	85	2
Kapital eragiketak	274,64	125,09	15,9	46	27
8 Finantza-aktiboak	4,00	1,87	0,2	47	6
9 Finantza-pasiboak	33,00	32,74	4,2	99	-27
Finantza-eragiketak	37,00	34,61	4,4	94	-26
Guztira	974,14	787,98	100	81	4

2018ko ekitaldirako behin betiko kredituak 974,14 milioikoak izan ziren, eta ehuneko 81eko betearazpen maila izan zuten. Gastu arruntak eta finantza-eragiketekin lotuak ehuneko 95eko eta ehuneko 94ko betearazpen mailan egon dira, hurrenez hurren. Hala ere, kapital gastuen betearazpen maila ehuneko 46koa izan da.

2018an, toki sektore publikoaren gastuak 787,98 milioikoak izan ziren, hots, 2017koak baino ehuneko lau gehiago izan ziren; nabarmentzekoak dira langileen gastuak eta ondasun arruntan nahiz zerbitzuen gaineko gastuak, ehuneko 36an eta ehuneko 35ean, hurrenez hurren, aitortutako gastu guztien gainean. Bestalde, inbertsioak gastu guztien artean ehuneko 15 dira.

2017. urtearekin alderatuta, aldakuntzarik nabarmenenak finantza-eragiketen ziozko gastuetan egon dira (ehuneko 26 murriztu dira), bai eta kapital eragiketetan ere (ehuneko 27 igo dira aurreko urteko datuen aldean), inbertsio gastuetan igoera egon baita, kapital transferentzien ziozko diru-sarreretan egondako igoerarekin lotuta.

Gastu guztien ehuneko 86 da udal eta kontzejuena, eta gainerako ehuneko 14a mankomunitate eta batasunena.

Hurrengo taulan gastu horien sailkapen funtzionala erakusten dugu:

(milioitan)

Funtzioa	2017ko zenbatekoa	2018ko zenbatekoa	Ehunekoa, 2018ko gastu guztien gainean	2018/17ko aldea (%)
Ongizate komunitarioa	104,45	108,48	14	4
Zerbitzu orokorrak	87,34	92,34	12	6
Hezkuntza	66,36	70,41	9	6
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	66,80	67,45	9	1
Kultura	57,43	64,78	8	13
Etxebizitza eta hirigintza	59,79	63,33	8	6
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	50,06	53,36	7	7
Pentsioak	49,88	51,88	7	4
Kirola	41,07	48,81	6	19
Zor publikoa	46,23	33,37	4	-28
Beste batzuk	122,62	133,76	17	9
Guztira	752,03	787,98	100	5

Ongizate komunitarioa (hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua, uraren hornidura, argiteria eta garbiketa, besteak beste) izan zen toki sektore publikoan 2018an zenbateko gehien eragin zuen gastu politika, 108,48 milioitan (zenbateko osoaren ehuneko 14), ondoren zerbitzu orokorrak zetoze (ehuneko 12an, 92,34 milioirekin).

Aurreko urtearekin alderatuta beherantz egin duen gastu politika bakarra da zor publikoarena, ehuneko 28ko aldakuntza izan duena. Gainerako gastu politikak igo egin dira, 2017ko datuekin alderatuta.

V.3. ADIERAZLEAK

Hurrengo taulan, toki sektore publikoan gastatutako 100 euro bakoitzaren bilakaera eta banaketa erakusten dugu, bai eta haien finantzaketa ere:

Gastuaren izaera	2017	2018	Finantzabidea	2017	2018
Langileak	37	36	Zerga bidezko diru-sarrerak	47	46
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	35	35	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	44	46
Transferentzien bidezko gastuak	10	10	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	8	7
Inbertsio errealak	12	15	Zorduntzea	1	1
Finantza-zama	6	4			
Finantza-aktiboak	0	0			
	100	100		100	100

Antzeman daitekeen bezala, ekitaldi batetik besterako aldeak ez dira nabarmenak, baina gastuak inbertsioetan duen pisua igo egin da (hiru puntu), eta konpentsatu egin da, langileen gastuen pisuak eta finantza-zamak behera egin dutelako, ehuneko bat eta bi, hurrenez hurren; diru-sarreretan, zerga bidezko diru-sarreraren pisua eta ondareen ziozkoena ehuneko bat murriztu da, eta konpentsatu egin da transferentzien ondoriozko diru-sarreretan egondako igoerarekin.

Inbertsioen gastuaren eta transferentzien ondoriozko diru-sarreraren igoera (batez ere kapitalarena) egon da, 2017-2019ko Tokiko Inbertsio Planak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Jarraian, toki entitateen finantza egoeraren adierazle batzuek 2014-2018 aldian zehar izan duten bilakaera ageri da:

(milioitan)

Adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018	Aldea (%) 2018/14	Aldea (%) 2018/17
Diru-sarrerak, guztira	747,88	751,27	765,30	784,48	839,48	12	7
Gastuak, guztira	720,77	732,93	717,40	758,13	787,98	9	4
Zerga bidezko diru-sarrerak	348,96	359,12	371,55	368,83	385,04	10	4
Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	336,54	323,05	332	347,39	390,26	16	12
Funtzionamendu gastuak	584,5	591,74	598,92	610,52	626,02	7	3
Kapitaleko gastuak	94,68	79,57	79,69	98,25	125,09	32	27
Aurrekontuko emaitza ez-finantzarioa	56,02	60,42	78,22	62,70	81,22	45	30
Aurrezki gordina	110,94	112,95	123,24	112,17	126,60	14	13
Finantza-zama	39,08	49,89	37,59	47,59	35,00	-10	-26
Aurrezki garbia	71,8	63	85,41	64,58	91,60	28	42
Finantza-zamaren indizea	5,61	7,08	5,23	6,58	4,65	-17	-29
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%)	15,83	15,98	17,15	15,52	16,82	6	8
Zorpetze ahalmena (%)	10,22	9,19	11,92	8,94	12,17	19	36
Zor bizia	337,96	301,39	280,46	234,26	207,63	-39	-11
Gastu orokorren diruzaintzako soberakina	171,28	192,42	226,99	238,45	250,65	46	5

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2017ko datuekin alderatuta, gastuak ehuneko lau igo ziren; diru-sarrerak, bestalde, ehuneko zazpi. 2014ko datuekin alderatuta izan duen bilakaera berbera da, baina aldea ehuneko bederatzikoa izan da gastuetan eta ehuneko hamabikoa diru-sarreretan.

- Kapitaleko gastuak 125,09 milioi izan ziren. Horixe izan da 2017ko ekitaldiarekin alderatuta gehien igo den gastua, igoera % 27koa izan baita.

- 2018an, toki sektore publikoak 91,6 milioiko aurrezki garbia eragin zuen, funtzionamendu gastuak eta zorraren finantza-zama ordaindu ondoren. Aurrezki hori 2014an lortutakoa baino ehuneko 28 handiagoa da, eta 2017ko datuekin alderatuta, ehuneko 42 igo da. Aurrezki gordina-ren igoeraren ondorioz egon da gorakada hori, bai eta finantza-zamaren jaitsieraren ondorioz ere, azken hori ehuneko 26 murriztu baita 2017koaren aldean.

- Nafarroako toki entitateen zor bizia 2018an 207,63 milioira igo zen, ehuneko 1,50eko batez besteko interes tasan eta 10,07 urteko batez besteko iraungitze epearekin. Datuak 2014 eta 2017koekin alderatzen baditugu, ehuneko 39ko eta 11ko jaitsiera egon da, hurrenez hurren. Murrizketa hain nabarmenak egon dira, neurri batean, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren (aurrerantzean, AEFILO) eskakizunen zioz, horien ondorioz 2018an zorra 32,7 milioitan amortizatu baita. Itundutako zor berria, bestalde, 4,1 milioikoa soilik izan da.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina (hurrengo ekitaldietan gastuen aurrekontu aldaketak finantzatzeko erabili daitekeen baliabide soberakina) 2018an 250,65 milioira igo zen. Hala, 2014ko eta 2017ko datuekin alderatuta, goranzko joera izan zuen, ehuneko 46 eta ehuneko 5 igo baitzen, hurrenez hurren.

V.4. AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK

AEFILOren arabera, “Toki Administrazio Publikoa”ren sektoreak honako zerga arau hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.
- Gastuaren araua, hots, 2018an sektoreko gastu zenbagarriak izan duen aldea 2017ko gastuarekin alderatuta, ezin da izan BPGd-ren hazkundearen erreferentzia tasa baino handiagoa; azken hori, ekitaldi honetarako, ehuneko 2,4an ezarri zen.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du sektorearen zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrerara arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Arlo honetan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa toki entitateetara eta haien erakunde autonomoetara mugatzen da, kontabilitate nazionalaren terminoetan “Nafarroako Toki Administrazio Publikoaren” sektorea berez egituratu gabe. Datu horien arabera, honako hau aipatu behar dugu:

a) 2018an, toki sektore publikoaren finantzaketa gaitasuna 73,56 milioikoa da, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 25 gehiago; ondorioz, zerga arau hau bete egin da, hurrengo taula honetan ondorioztatu daitekeen bezala:

(milioitan)	
Finantzaketaren gaitasuna/beharra	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finanzarioa	81,22
Doikuntzak:	
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	(12,08)
Beste administrazio publiko batzuegandik jasotako transferentziak	4,42
2018ko finantzaketa gaitasuna	73,56

b) Sektorearen zor bizia 2018ko abenduaren 31n 207,63 milioikoa zen, hau da, diru-sarrerara arrunten ehuneko 28. Portzentaje hori legeria indardunean ezarritako ehuneko 110eko mugatik beherakoa da; horrenbestez, arau hori bete egiten da.

c) Ez da informaziorik aurkeztu gastuaren aruari eta merkataritza zorra ordaintzeko epeei buruz. Azken arau honetan egiaztatzen ahal izan denez, Ogasun Ministerioaren argitalpenaren arabera, Nafarroako 56-61 toki entitateen informazioa soilik ageri da 2018ko lau hiruhilekoetarako; horri jarraikiz, ordaintzak egiteko batez besteko aldia, urteko azken hiruhilekoaren batez bestekoa kontuan hartuta, 15,42 egunekoa da, hau da, ezarritako 30 eguneko epearen mugatik behera dago. Ministeriora datuak bidaltzen dituzten entitateak Nafarroako toki entitate guztien artean ehuneko zortzi baino ez dira.

VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, toki entitateek eta beren menpeko erakundeek 2018. urtean adjudikatutako kontratuak aztertzeko dira, Kontratazio Publikoko Batzak kudeatutako kontratuen erregistroko informazioaren arabera.

Toki entitateek adjudikatutako kontratuen oinarriko datuak honako hauek izan ziren:

Kontratu mota	Udalak		Kontzejuak		Mankomunitateak		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	224	44.381.705	10	2.070.849	34	20.020.280	268	66.472.834
Zerbitzuak	114	9.608.470	3	56.216	6	574.790	123	10.239.476
Hornidurak	38	2.087.408			6	2.063.898	44	4.151.306
Zerbitzu emakidak	17	508.611				0	17	508.611
Guztira, oro har	393	56.586.194	13	2.127.065	46	22.658.968	452	81.372.227

2018an, toki entitateek 452 kontratu adjudikatu zituzten, guztira 81,37 milioitan, hots, 2017an adjudikatutako zenbatekoa baino ehuneko 108 gehiago. Kontratuen ehuneko 59 obra kontratuak dira, eta adjudikatutako zenbateko osoaren ehuneko 82 osatzen dute. Joera aldatuta ageri da aurreko bi urteekin alderatuta, horietan laguntza kontratuen kopurua nabarmentzen baitzen (zerbitzuak 2/2018 Foru Legean). Zerbitzu kontratuak kontratu guztien artean ehuneko 27 dira, nahiz eta horien zenbatekoak zenbateko guztiaren artean ehuneko 13 osatzen duen.

Kontratu guztietatik ehuneko 87 adjudikatu zituzten udalek eta ehuneko hamar mankomunitateek, nahiz eta zenbatekoan ehuneko 70 eta 28 osatzen duten, hurrenez hurren.

2018an, toki entitateen menpeko erakundeek honako kontratu hauek adjudikatu zituzten:

Kontratu mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	1	89.257	42	12.136.553	43	12.225.810
Zerbitzuak	2	306.632	43	5.283.458	45	5.590.090
Hornidurak			24	2.963.270	24	2.963.270
Zerbitzu emakidak	1	990.612			1	990.612
Guztira, oro har	4	1.386.501	109	20.383.281	113	21.769.782

Erakunde autonomoek eta sozietate publikoek guztira 113 kontratu adjudikatu dituzte 21,77 milioitan, 2017. urtean baino ehuneko 132 handiagoa den zenbatekoan.

2018an adjudikatutako kontratu guztien artean ehuneko 96 dira sozietate publikoenak, 20,38 milioitan. Hala, zenbateko osoaren ehuneko 94 osatzen dute. Gainerako kontratuak erakunde autonomoek adjudikatu zituzten. Ez da ageri fundazioek adjudikatutako kontraturik.

Laburbilduz, 2018. urtean toki entitateek, beren erakunde autonomoek eta sozietate publikoek 565 kontratu adjudikatu zituzten, guztira 103,14 milioitan.

Jarraian, kontratu kopurua eta zenbatekoa azalduko ditugu, kontratazio prozeduren arabera. 2018an kontratazio publikoan araudia aldatu denez, urtean zehar bi foru lege egon dira indarrean eta, kasu batzuetan, antzeko prozedurak bildu ditugu (baina ez berdinak) bi foru legeetatik.

	Irekia		Publizitaterik gabe negoziatua		Erraztua		Mugatua		Publizitatearekin negoziatua		Proiektuen lehia-keta		Guztira, oro har	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	170	66.129.936	34	3.028.768	107	9.539.940							311	78.698.644
Zerbitzuak	136	14.017.216	16	333.882	13	311.433	1	43.316	1	240.119	1	883.600	168	15.829.566
Hornidurak	51	6.700.396	8	164.815	9	249.365							68	7.114.576
Zerbitzu emakidak	18	1.499.223	0										18	1.499.223
Guztira, oro har	375	88.346.771	58	3.527.465	129	10.100.738	1	43.316	1	240.119	1	883.600	565	103.142.009

Nabarmentzekoa da prozedura irekia erabili dela kontratu guztien ehuneko 66an, ondoren prozedura erraztua, eta, jarraian, publizitaterik gabe negoziatutako prozedura, ehuneko 23an eta ehuneko 10ean, hurrenez hurren. Zenbatekoan, prozedura irekia erabili da ehuneko 86 adjudikatzeko, eta, bestalde, ehuneko 10a prozedura erraztuaren bidez adjudikatu da.

Azkenik, kontratu kopurua ageri da, erabilitako adjudikazio irizpidearen arabera. Bi foru legeen irizpide desberdinak bitan batu ditugu: prezioa (bertan sartzen dira bai preziorik txikiena, bai kostuaren eta eraginkortasunaren arteko harreman onena duena prezioaren arabera), eta gainerakoa.

	Prezioa irizpidea	Gainerakoa	Guztira
Obrak	44	267	311
Zerbitzuak	27	141	168
Hornidurak	18	50	68
Zerbitzu emakidak	0	18	18
guztira	89	476	565

Kontratuen ehuneko 16 prezioa soilik kontuan hartuta adjudikatzen da, eta gainerakoa kalitate-prezio harreman onenaren arabera (kostua eta eraginkortasuna, irizpide kualitatiboaren arabera, eta eskaintzarik abantailatsuenak, aurreko foru legean).

Urteko adjudikazioen zenbatekoak aztertuz gero antzeman dezakegunez, 565 kontratu guztietatik 24 obra kontratuk, sei zerbitzu kontratuk, hiru hornidura kontratuk eta zerbitzu emakidaren kontratu batek gainditu dute 600.000 euroko zenbatekoa, guztira 44,01 milioi osatuta; 24 obra kontratu, hiru zerbitzu kontratu eta hiru hornidura kontratu adjudikatu ziren 400.000 eurotik gorako prezioan, bakoitza 14,59 milioitan, eta, azkenik, 85 obra kontratuk, 14 zerbitzu kontratuk eta hornidura kontratu batek gainditu zituzten 150.000 euro, guztira 22,91 milioi osatuz.

Adjudikazioen urteko zenbatekoa kontratu horietarako (hots, beren zenbatekoengatik nabarmentzen diren horietarako) honako hau izan zen:

Kontratu mota	Kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa
Obrak	133	65.797.779
Zerbitzuak	23	10.483.779
Hornidurak	7	4.245.216
Zerbitzu emakidak	1	990.612
Guztira, oro har	164	81.517.386

VII. BIZTANLERIA GERUZEN ARABERAKO ALDERAKETA, HAINBAT ADIERAZLEREN GAINEAN, NAFARROAKO UDALEN ETA ESTATU MAILAKO UDALEN ARTEAN

Atal honetan, Nafarroako udalen eta Estatuko beste udal batzuen arteko adierazleak alderatu dira, biztanleria geruzen arabera. Azken udal horien gaineko informazioa 2018ko Toki Sektore Publikoaren Kontuen Auzitegiaren txostenetik atera da. Bertan, ez dira sartzen Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak.

a) 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalak

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Aldea (%) Nafarroa-Estatua
Gastuak guztira (biztanleko)	1.706	1.454	15
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	1.035	942	9
Gastu arrunta (biztanleko)	1.039	1.014	2
Ordainketen betearazpena (%)	92	93	-
Inbertsio indizea (%)	33	28	-
Langile indizea (%)	21	28	-
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.774	1.591	10
Zerga bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	602	659	-9
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.477	1.291	13
Kobrantzak bete diren (%)	88	87	-
Transferentzia arrunten menpekotasuna (%)	41	37	-
Aurrezki gordina (biztanleko)	443	281	36
Finantza-zama (biztanleko)	72	36	50
Aurrezki garbia (biztanleko)	370	245	34
Finantza-zamaren indizea (%)	5	3	-
Zorpetze ahalmena (%)	24	19	-
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%)	28	22	22
Zor bizia (biztanleko)	342	178	48
Saldo ez-finantzarioa (biztanleko)	122	71	42
Saldo finantzarioa (biztanleko)	-54	-22	60
Zorpetze maila (%)	22	14	-

Alderaketa horretatik, honako hau nabarmentzen dugu:

Biztanleria geruza horretan daude 272 Nafarroako udaletatik 189, nahiz eta adierazleak 176 udalek aurkeztutako datuekin kalkulatu diren.

Gastuaren bolumena handiagoa da Nafarroan, bai eta diru-sarrerak ere, zergak salbu, horiek Estatuko udaletakoak baino ehuneko bederatzi txikiagoak baitira.

Gastu osoaren gaineko inbertsio indizea Estatukoa baino altuagoa da, eta langileena, aldiz, baxuagoa.

Nafarroako udaletan, biztanleko zor bizia 342 eurokoa da, hau da, Estatuko gainerako udaletan dagoena baino ehuneko 48 handiagoa. Hala ere, Nafarroan per capita aurrezki gordina eta garbia handiagoak dira; zehazki, ehuneko 36 eta 34 handiagoak, hurrenez hurren, Estatuko udaletako datuen aldean.

Zorpetze maila edo diru-sarrera arrunten gaineko zorra Nafarroako udalarentzat ehuneko 22koa da, Estatuko ehuneko 14aren aldean.

b) 1.001 eta 5.000 biztanle arteko udalak

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Aldea (%) Nafarroa-Estatua
Gastuak guztira (biztanleko)	1.151	1.075	7
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	861	763	11
Gastu arrunta (biztanleko)	864	821	5
Ordainketen betearazpena (%)	92	93	-
Inbertsio indizea (%)	20	20	-
Langile indizea (%)	30	34	-
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.274	1.158	9
Zerga bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	547	546	0
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.081	1.019	6
Kobrantzak bete diren (%)	90	86	-
Transferentzia arrunten menpekotasuna (%)	39	37	-
Aurrezki gordina (biztanleko)	220	203	8
Finantza-zama (biztanleko)	58	47	20
Aurrezki garbia (biztanleko)	161	156	3
Finantza-zamaren indizea (%)	5	5	-
Zorpetze ahalmena (%)	15	16	-
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%)	20	20	2
Zor bizia (biztanleko)	339	239	30
Saldo ez-finantzarioa (biztanleko)	160	110	31
Saldo finantzarioa (biztanleko)	-37	-27	27
Zorpetze maila (%)	32	23	-

Biztanleria geruza honetatik nabarmentzekoak dira:

- Tarte honetan, Nafarroan guztira 62 udal ditugu, nahiz eta horietatik lauk ez duten konturik aurkeztu.
- Biztanleko gastuen bolumena Nafarroan handiagoa da, batez ere funtzionamendu gastuetan. Biztanleko diru-sarrerak guztira handiagoak dira Nafarroako udaletan, nahiz eta zerga bidezko diru-sarrerak Estatukoena ia berdinak diren.
- Inbertsio indizea berdina da Nafarroan eta Estatuan, baina langile indizea, bestetik, Estatu-koa baino baxuagoa da.
- Nafarroako udaletan, biztanleko zor bizia 339 eurokoa da, hau da, Estatuko gainerako udaletan dagoena baino ehuneko 30 handiagoa. Hala ere, Nafarroan per capita aurrezki gordina eta garbia handiagoak dira; zehazki, ehuneko zortzi eta hiru handiagoak, hurrenez hurren.

Zorpetze maila Nafarroako udalentzat ehuneko 32koa da, Estatuko ehuneko 23aren aldean.

c) 5.001 eta 50.000 biztanle arteko udalak

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Aldea (%) Nafarroa-Estatua
Gastuak guztira (biztanleko)	938	997	-6
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	779	728	7
Gastu arrunta (biztanleko)	782	799	-2
Ordainketen betearazpena (%)	92	92	-
Inbertsio indizea (%)	12	13	-
Langile indizea (%)	42	37	-
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.001	1.089	-9
Zerga bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	522	617	-18
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	923	1.002	-9
Kobrantzak bete diren (%)	94	88	-
Transferentzia arrunten menpekotasuna (%)	40	33	-
Aurrezki gordina (biztanleko)	143	210	-47
Finantza-zama (biztanleko)	36	76	-110
Aurrezki garbia (biztanleko)	107	134	-25
Finantza-zamaren indizea (%)	4	8	-
Zorpetze ahalmena (%)	12	13	-
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%)	15	21	-36
Zor bizia (biztanleko)	241	348	-45
Saldo ez-finantzarioa (biztanleko)	98	129	-32
Saldo finantzarioa (biztanleko)	-35	-36	-3
Zorpetze maila (%)	26	35	-

Biztanleria geruza honetatik nabarmentzekoak dira:

- Tarte honetan, Nafarroan guztira 20 udal ditugu, eta guztiek aurkeztu dituzte kontuak.
- Gastuen bolumen osoa eta biztanleko gastu arrunta txikiagoak izan dira Nafarroan, baina funtzionamendu gastuak, aldiz, handiagoak. Biztanleko diru-sarrera guztiak ere txikiagoak izan dira Nafarroan, eta nabarmentzekoak dira zerga bidezko diru-sarrerak, Estatuko udaletan baino ehuneko 18 gutxiago izan baitira. Nafarroan, transferentzia arrunten menpekotasuna ehuneko zazpi handiagoa da Estatuko udaletakoa baino.
- Inbertsio indizea ehuneko bat baxuagoa da Nafarroan, baina langile indizea, bestetik, Estatukoa baino altuagoa da tarte honetan.
- Nafarroako udaletan, biztanleko zor bizia 241 eurokoa da, hau da, Estatuko gainerako udaletan dagoena baino ehuneko 45 txikiagoa. Hala ere, Nafarroan per capita aurrezki gordina eta garbia txikiagoak dira; zehazki, ehuneko 47 eta 25 txikiagoak, hurrenez hurren.
- Zorpetze maila Nafarroako udalentsat ehuneko 26koa da, Estatuko ehuneko 35aren aldean.

d) 100.000 eta 500.000 biztanle arteko udalak (Iruña)

Adierazlea	Nafarroa	Estatua	Aldea (%) Nafarroa-Estatua
Gastuak guztira (biztanleko)	1.025	937	9
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	896	634	29
Gastu arrunta (biztanleko)	899	755	16
Ordainketen betearazpena (%)	90	90	-
Inbertsio indizea (%)	8	10	-
Langile indizea (%)	46	33	-
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.072	996	7
Zerga bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	442	526	-19
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.018	918	10
Kobrantzak bete diren (%)	94	90	-
Transferentzia arrunten menpekotasuna (%)	50	17	-
Aurrezki gordina (biztanleko)	123	171	-39
Finantza-zama (biztanleko)	48	95	-98
Aurrezki garbia (biztanleko)	75	76	-1
Finantza-zamaren indizea (%)	5	10	-
Zorpetze ahalmena (%)	7	8	-
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%)	12	19	-58
Zor bizia (biztanleko)	346	433	-25
Saldo ez-finantzarioa (biztanleko)	91	102	-12
Saldo finantzarioa (biztanleko)	-44	-43	4
Zorpetze maila (%)	34	47	-

Nabarmentzekoak dira:

- Nafarroan, tarte honetan Iruñeko Udala dago soilik, eta 75.000 biztanletik gorako udalentsako eta Estatuko gainerako udaletako probintzia hiriburuentsako zerga lagapenaren araubidearekiko aldeak kontuan hartuta, zerga bidezko diru-sarreraren adierazlea eta transferentzia arrunten mendekotasunari buruzko adierazlea ez dira guztiz alderatzeko modukoak.
- Per capita gastu eta diru-sarrera guztiak handiagoak dira Iruñean, Estatuko gainerako udaletan baino. Azpimarratzekoak dira funtzionamendu gastuak, Estatuko udaletan baino ehuneko 29 handiagoak baitira.
- Inbertsio indizea zertxobait baxuagoa da, eta langile indizea, bestalde, ehuneko 13 altuagoa.
- Aurrezki gordina ehuneko 39 txikiagoa da Iruñean, Estatuko gainerako udaletako datuekin alderatuta. Hala ere, aurrezki garbia ehuneko bat soilik txikiagoa da, finantza-zama Iruñeko Udalan ehuneko 98 txikiagoa delako.
- Iruñeko zor bizia 346 eurokoa da biztanleko, hau da, Estatuko gainerako udaletan baino 25 txikiagoa, eta zorpetze maila ehuneko 13 txikiagoa da.

VIII. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Toki sektore publikoaren 2018ko antolaketari, fiskalizazioari eta finantza egoerari buruzko ondorio nagusiak honako hauek izan dira:

- Toki sektore publikoa 702 toki entitatek osatzen dute: 272 udal, 346 kontzeju, 62 mankomunitate eta 22 batasun. Toki entitate horiek 125 menpeko erakunde eratu dituzte, zerbitzuak emateko. Halaber, 17 partzuergoren parte dira.

Ganbera honek behin eta berriz adierazi du Nafarroako egungo udal antolaketan arrazionalizazio falta dagoela. Arazo horrek, bada, bere horretan dirau, Nafarroako udalerrien biztanleria dimensio murriztarekin batera. Errealitate horrek eragina dauka zerbitzuen horniduran, bai eta administrazio egitura egokia eta aski egoteko orduan ere, beren eskumenak kudeatzeko. Ondorioz, zerbitzu publiko eraginkor eta kalitatezkoak ematea zailtzen du.

Horren gainean, gaur egun Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea onartuta dago, baina arau aldaketak egin eta onartu behar dira, planteatutako erreforma behin betiko zehaztu dadin. Txosten honen datan, II.2. atalean aipatzen den finantzaketa proposamena ez da Nafarroako Parlamentura bidali, nahiz eta horretarako epea 2019ko abenduan amaitu zen. Halaber, ez da eskualdeen sorrera aktibatua.

Jarraian, 2018ko ekitaldiko kontuak onartu eta emateko epeen zehaztapenak azaltzen dira:

Entitate mota	Epe barruan onartuta (2019-09-01)	Epe barruan bidalita (2019-09-16)	2019-12-31rako bidalita
Udalak	% 82	% 66	% 89
Kontzejuak	% 73	% 60	% 78
Mankomunitateak	% 74	% 63	% 76
Udal batasunak	% 73	% 55	% 86

Nabarmentzekoa da, kontu gehienak araudian ezarritako epearen barruan onartzen diren arren, kontuak emateko epea denboran luzatu egiten dela eta kontuak epe barruan ematen dituztenen ehunekoak nahiko txikiak direla.

Era berean, 2018ko ekitaldiko aurrekontuen espediente onartu eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusira bidaltzeko epeen zehaztapenak azaldu ditugu:

Entitate mota	Epe barruan onartuta (2017-12-31)	Epe barruan bidalita (2018-01-16)	2018-04-01erako bidalita
Udalak	% 37	% 6	% 43
Kontzejuak	% 10	% 2	% 18
Mankomunitateak	% 45	% 8	% 31
Udal batasunak	% 32	% 0	% 23

Nabarmentzekoa da ezarritako epean onartutako aurrekontuen indizeak baxuak direla. Gainera, kasu honetan, espedientearen onarpenaren eta hura epe barruan bidaltzearen artean dagoen aldea handiagoa da Kontu Orokorrean ageri dena baino.

- 2018. urtean, Iruña, Burlata, Castejón, Martzilla, Murchante, Erriberri eta Vianako Udalak, Figaroleko Kontzejuak eta Nafarroako Erdialdeko Partzuergoa fiskalizatu ziren.

Fiskalizazioetan antzemandako hutsune nagusiak kontratazio espediente egokia izapidetu gabe ordaindu diren gastuei buruzkoak dira, edo udal inbentarioaren onarpen eta eguneraketa faltaren eta enplegu publikoaren eskaintzen eta baimendutako lanpostu hutsen deialdi faltaren aurretik amaitu ziren indarraldia zuten kontratuei buruzkoak.

- Toki sektore publikoaren finantza egoera finkatuari dagokionez, 2018an, diru-sarrerak 839,48 milioi izan ziren. Hau da, 2017ko datuen aldean, ehuneko zazpi igo ziren; gastuak, bes-

talde, 787,98 milioi igo ziren, hau da, ehuneko lau. 2014ko datuekin alderatuta egon den igoera ere positiboa izan da, nahiz eta diru-sarrerak ehuneko 12 igo ziren eta gastuak ehuneko 9.

Aurrekontuko gastu eta diru-sarrera esanguratsuenen osieran, funtzionamendu gastuak 626,02 milioi izan ziren, hots, 2014ko datuekin alderatuta, ehuneko zazpi gehiago, eta, 2017ko datuekin alderatuta, ehuneko hiru gehiago. Bestalde, zerga bidezko diru-sarrerak 385,04 milioi-koak izan ziren. 2018an, beraz, aurreko urteko datuekin alderatuta, ehuneko lau igo da, eta 2014ko datuekin alderatuta, ehuneko hamar. Aurrekontuko emaitza ez-finantzarioa ere igo egin da iazko urtearekin eta 2014arekin alderatuta: ehuneko 30 eta 45eko igoerak, hurrenez hurren.

Toki sektore publikoak 81,22 milioiko emaitza ez-finantzarioa lortu zuen, 91,60 milioiko aurrezki garbia izan zuen, eta gastu orokorretarako diruzaintza soberakina 250,65 milioikoa izan zen. Azken adierazle horrek azken urteetako goranzko joeran jarraitzen du, 2014ko datuekin alderatuta ehuneko 46 igota.

2018an, zor bizia 207,63 milioikoa zen, hau da, ehuneko 39 murriztu zen 2014ko datuekiko, eta ehuneko 11 2017ko datuekiko; toki entitateek ehuneko 12ko zorpetze ahalmena zuten.

Gainera, 73,56 milioiko finantza gaitasuna lortu zuen, eta zor bizia diru-sarrera arrunten ehuneko 28an jarri zen, hots, legez ezarriko ehuneko 110eko muga baino askoz beherago.

Azken finean, toki sektore publikoaren egoera ekonomikoa saneatua da. Adierazle ekonomiko eta finantzario guztiek dute bilakaera positiboa, nahiz eta gastu ez-finantzarioen egikaritzea eta zorpetze maila mugatuta dauden, egonkortasuneko eta finantza jasangarritasuneko helburuak bete behar direlako. Helburu horiek toki sektore publikoak oro har bete egin ditu 2018ko ekitaldian.

- Toki entitateek eta beren menpeko erakundeek 2018an guztira 565 kontratu adjudikatu zituzten, 103,14 milioitan; horietatik ehuneko 55 ziren obra kontratuak (aipatu zenbateko osoaren ehuneko 76); ehuneko 30 ziren zerbitzu kontratuak (zenbateko osoaren ehuneko 15); ehuneko 12 ziren hornidura kontratuak (zenbateko osoaren ehuneko 7); eta gainerako hirurak zerbitzu emakiduen ziozkoak ziren (zenbateko osoaren ehuneko bi).

- Nafarroako udalen eta Estatuko gainerako udalen adierazleak alderatu eta aztertuz gero, aldeak antzeman daitezke biztanleria tarteen arabera; biztanleko gastuak eta diru-sarrerak handiagoak dira Nafarroako udaletan, 5.000 biztanletik 50.000 biztanlera bitarteko udalen tartean salbu. Aurrezki gordin eta garbiaren adierazleak handiagoak dira Nafarroako udalentsat, 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenean. Era berean, biztanleko zor bizia eta zorpetze maila handiagoak dira 5.000 biztanletik beherako udaletan eta txikiagoak, bestalde, gainerakoetan. Zerga bidezko diru-sarrerak txikiagoak dira Nafarroan tarte guztietan, 1.000 eta 5.000 biztanle arteko tartetean salbu, azken horretan antzekoak baitira. Halaber, transferentzia arrunten mendekotasuna handiagoa da Nafarroako udalentsat, biztanleria tarte guztietan.

- Toki ogasunei buruzko erregulazioak berrikuspen sakona behar du, aurrekontuko eta kontabilitateko araubideari, barne kontroleko sistemari eta finantzaketa ereduari dagokienez.

Era berean, Nafarroako toki kontabilitatea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren oinarriaren arabera araututa dago, 1990eko uztailaren 17ko Ministerio Aginduaren bidez toki administrazioarentzat egindako egokitzearen arabera.

Arlo hau dela eta egin den azken eguneratzea 2015ekoa da, toki entitateen aurrekontu egitura berria onetsi zenekoa. Egitura berri hori araubide komuneko toki entitateek aplikatutakoari egokitzzen zaio.

Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko erakundearen kontabilitatearen egoera orriak bateratzeari buruz.

Kontuan hartuta ondorio horiek guztiak, Ganberak honako gomendio hauek egiten ditu:

Nafarroako Parlamentuari eta Foru Komunitateko Administrazioari:

- *Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsiz hasitako prozesuarekin jarraitzea, eta foru lege horrek jasotzen duen Nafarroako toki administrazioaren berregituraketa osatzeko behar diren legegintza eta administrazio neurriak hartzea, kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorra lortze aldera.*

- *Toki kontabilitatea urgentziaz berritzea, eta 2010eko Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea.*

- *Toki entitateen eta horien menpeko erakundeen kontabilitateko egoera orriak bateratzeko metodologiari buruzko arauak taxutzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabaketeo ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Tokiko zerbitzuen kostuak kalkulatzeko sistema baten ezarpena diseinatu eta sustatzea, bai eta horien kudeaketa adierazleak ere, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legean nahiz Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean aurreikusitakoa betez.*

- *Toki Ogasuneko Funtsarekin lotuta oraintsu onartutako araudian proposatutako aldaketak betetzea, banaketa formulari jasotako aldagaiak berraztertzea, eta zerbitzuen eskumenen adjudikazioa ezartzea, Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean aurreikusita ez dauden kasuetan.*

- *Toki ogasunen esparrua eguneratzea, hartan jasotzeko toki entitateei aplikatu dakizkiela araudiaren betekizun eta eskakizunak.*

- *Toki entitateetan barne kontrolaren araubide juridikoari buruzko araudia prestatzea, besteak beste honakoak lortzeko: ekonomiaren eta aurrekontuaren gaineko kontrol zorrotzagoa egitea eta toki entitateetan kontu-hartzailetzaren eginkizuna indartzea.*

- *Foru Komunitateko Administrazioak bete behar duen finantza tutoretza betetzeko araudiak eta prozedurak ezartzea, Foru Komunitateko toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzerakoan.*

- *Toki entitateen kontu ematei eta kontuen edukiei buruzko informazioa osatzea toki administrazioaren gaineko eskumena duen sailaren web orrian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera.*

- *Prozesuak informatizatzen jarraitzea, toki entitateetako organo kontu-hartzaileei laguntzeko AEFILOn ezarritako txostenak bidaltzen.*

- *Toki entitateen erregistroa eguneratzen amaitzea sozietate publikoei eta tokiko fundazioei buruzko informazioarekin, eta jada existitzen den informazioa zuzena dela egiaztatzea.*

- *Toki sektore publikoaren finantza egoerari buruzko txostena, Nafarroako Gobernuak egingakoa, osatzea sozietate publikoei, fundazioei eta partzuergo publikoei buruzko informazioarekin.*

- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, zeinak argitasunez eta zehaztasunez jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa; eredu horrek, halaber, aukera emanen du toki entitateek informazio betekizunak bete ditzaten.*

Toki entitateei:

- *Egungo arau testuinguruan, gutxitzea, deialdi egokien bitartez, toki entitateetako langileen behin-behinekotasun maila handia.*
- *Udal ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*
- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintza hitzarmenen gaineko erregistroa ere.*
- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako hedapenarekin, menpeko erakundeen kudeaketa ekonomikoaren gaineko kontrolari dagokionez, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailatza, finantza kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*
- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolaketa egitura arrazoizkoena diseinatzea.*
- *Zerbitzu publikoen kostuen metodologia ezartzea, eta erabakiak hartzeko kudeaketa adierazle erabilgarriak zehaztea.*
- *Aurrekontua eta kontu orokorra onartzea epe barruan, eta bien kontuak ematea, kontuok onartu eta hamabost eguneko epean.*
- *AEFILON aurreikusitako informazioa bidaltzea, besteak beste merkataritza zorraren ordaintza egiteko batez besteko aldiari buruzkoa.*
- *Balorazio txostenetarako epea gaurkotzea.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta jaulkitzen da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko urriaren 27an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. TOKI ENTITATEEI APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA 2018ko EKITALDIAN**a) Toki administrazioa eta araubidea**

- 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 19/2013 Foru Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 20/2017 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena.
- 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 18/2017 Foru Legea, abenduaren 27koa, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituena 2018. eta 2019. urteetarako.
- 84/2017 Foru Agindua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariarena, Tokiko Inbertsioen 2017-2019 Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluan aurreikusitako gizarte klausula aplikatzeko modua arautzen duena.
- 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituena.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.
- 12/2018 Foru Legea, ekainaren 14koa, Irisgarritasun Unibertsalari buruzkoa.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzkoa.

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifei eta Jarraibideei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuarena eta gastu publikoarena, aurrekontu egiturarena, Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra onartzekoa eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Erraztuari buruzkoa, hurrenez hurren.
- Toki Administrazioa egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1990eko uztailaren 17ko Aginduaren bidez onartua. (272/1998 FD 425 Araua, Kontabilitateko Instrukzio orokorra).

- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoa.

c) Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaz aldatu zen).
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, honako hauek aldatzeko: Autonomia-erkidegoak Finantzatzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 1/2018 Errege Lege Dekretua, martxoaren 23koa, Toki-korporazioen superabita finantzen aldetik jasagarriak diren inbertsioetara bideratzeko aukera luzatzen duena eta inbertsio horien eremu objektiboa aldatzen duena.
- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako neurri urgeteei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzeari buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoa.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzeko.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusia-rena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhertasun finantzarioa.

d) Kontratazio administratiboa

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 32/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen Europako atalaseak eguneratzen dituena.

e) Langileak

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.
- 158/1984 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzurako langileen ordainsarien behin-behineko araudia onartzen duena (martxoaren 29ko 21/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatua).

- 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena (maiatzaren 17ko 29/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatua).

- 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

- 8/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako polizia buruzkoa.

- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistemaren urgentziazko erreformarakoa.

f) Hirigintza

- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.

g) Dirulaguntzak

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako erregelamendua, Lege hori garatzen duena.

h) Toki entitateen barne araubidea

- Toki entitateen 2018rako aurrekontuak betetzeko oinarriak.

- Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.

- Berariazko hitzarmen kolektiboak.

